

OBRA ILEGALA IGELTXOAREN HABITATEAN

Idatzi honen bitartez Errotatxoko putzuaren ondoan (Igara, Donostia) egiten ari den Legearen kontrako obra salatu nahi dugu. Duela aste batzuk jada, Muebles DG industriaguneko H15 pabiloian kokaturik dagoen **ORIBAY GROUP** delakoak lanean hasi da Errotatxoko putzuaren atzealde-gainaldean, atxikitako argazkietan ikus daitekenez, 5 mko babes-gerrikoa ere ukituz eta kaltetuz.

Guk dakigularik obrak ez dauka inolako baimenik. Mendizorrotzeko *Hyla meridionalis* populazioaren Kudeaketa Planaren urraketa zuzena da. Horregatik Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Donostiako Udalari zigor-espedita irekitzea eta eremua ahalik eta azkarren leheneratzea eskatu nahi diegu. Era berean, Ingurumen Fiskaltzari egintzak ikertzeko eskatzen diogu.

Oso zaila dela neurtzea populazioari eragindako kaltea, igeltxoak loaldian edo oso aktibitate baxuan baitaude, gordeleku ezberdin anitzak erabiliz (ikusi bestela joan den asteko argazkia Errotatxotik gertuko baratza batean). Beraz, obretako eremuan animaliak izango zirela segurutzat jo daiteke, ez ordea kopurua. Gainera, etxola berri horren helburua materiale oso arriskutsuak, lehergarriak edo behintzat sukoiak, bere baitan gordetzea da, hura orain baimentzea arriskua emendatuko lukeelarik. Edozein kasutan ere, esan bezala, Kudeaketa Planaren eta ondorioz Natura Kontserbatzeko Legearen urraketa zuzena da.

Enpresari atzera egiteko eta lur-eremua leheneratzeko eskatzen diogu eta Erakunde Publikoei erantzun azkarra Natura Kontserbatzeko Legea, Udal Ordenantzak eta Foru Aginduak, besteak beste, bete daitezen.

Donostian, 2015eko abenduaren 7an.

* **Oharra:** Urraturiko Foru Agindua: [2001eko maiatzaren 28ko FORU AGINDUA](#), hegoaldeko zuhaitz Igela (*Hyla Meridionalis*) Kudeatzeko Plana eta babesteko arau osagarriak onartzen dituen 1999ko azaroaren 10eko Foru Aginduan atal berria sartzen duena.